

## **LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2017/2018 ikasturtea**

### **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA ETA FINLANDIA: HEZKUNTZA INKLUSIBOAREN TRATAERA**

**Egilea: Naroa Sacristan Landaberea**

**Zuzendaria: Juan Abasolo Isasa**

**Leioan, 2018ko maiatzaren 29an**

## AURKIBIDEA

Sarrera.....	4
1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala.....	5
1.1. Hezkuntza inklusiboa.....	5
1.1.1. Hezkuntza inklusiboaren definizioa eta oinarriak.....	5
1.1.2. Integrazioa, inklusioa eta hezkuntza laguntza berezia.....	6
1.1.2.1. Integrazioa.....	7
1.1.2.2. Inklusioa.....	7
1.1.2.3. Hezkuntza laguntza berezia.....	8
1.2. Finlandiako eta EAeko testuingurua eta hezkuntza-sistema.....	9
1.2.1. Testuinguruak.....	9
1.2.2. Hezkuntza-sistemak.....	11
1.2.2.1. Hezkuntza-adierazleak.....	12
2. Hipotesiak.....	13
3. Metodologia.....	13
4. Lanaren garapena: analisi konparatiboa.....	14
4.1. Datuen azalpena eta interpretazioa.....	14
4.1.1. Legedia eta arau-esparrua.....	14
4.1.2. Laguntzen kudeaketa eta baliabide profesionalak.....	17
4.2. Datuen justaposizioa.....	20
4.3. Ezberdintasunen eta berdintasunen egiaztapena. Emaitzak.....	22
4.3.1. Hezkuntza legediaren eta arau esparruaren emaitzak.....	22
4.3.2. Laguntzen kudeaketaren eta baliabide profesionalen emaitzak.....	22
4.3.3. Inkesten emaitzak.....	23
5. Ondorioak.....	24
6. Erreferentzia bibliografikoak.....	26

### ERANSKINAK

1. eranskina: Finlandiako eta EAeko hezkuntza adierazleen grafikoak.....	29
2. eranskina: Irakasleentzat inkesta (euskaraz eta ingelesez).....	31
3. Hezkuntza laguntza berezia behar duten ikasleak EAEn.....	33
4. eranskina: 175/2007 DEKRETUA. IV. kapitulua, Aniztasunaren trataera.....	34
5. eranskina: Finlandian laguntza berezia jaso duten ikasleak, irakaskuntza lekuaren arabera.....	35
6. eranskina: Inkesten emaitzak Finlandian eta EAEn.....	36

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA ETA FINLANDIA: HEZKUNTZA INKLUSIBOAREN TRATAERA****Naroa Sacristan Landaberea**

EHU/UPV

EAEko eta Finlandiako hezkuntza-sistemen alderaketan datzan GrAL honek Hezkuntza Gonbaratua izan du ardatz. Bertan, bi lurralde hauek hezkuntza inklusiboaren trataerari eskainitako erantzuna alderatu izan da. Ikerketa lana da hau eta analisi sistematikoaren bitartez, hezkuntza inklusiboaren inguruko elementu batzuk aztertu izan dira. Helburua bi herrialde hauen aniztasunaren trataera konparatzea eta ezagutzea zen eta horren bitartez, hezkuntza inklusiboaren ulermenean ezberdintasunak azaleratu izan dira: inklusioarekiko jarrera uzkurra izanik Finlandia integrazioan ardatzen den bitartean, EAEn inklusioarekiko bidean aurrerapausoak nabari dira. Hala ere, aldaketa beharra sumatzen da bai hemengo zein Finlandiako legedian. Hori horrela, giza-eskubidetzat dugun inklusioa lortzeko bidean jarraituz gero, ikasleei eskolan ere errealitatearen aniztasunean hezteko aukera eskainiko diegu.

*EAE, Finlandia, hezkuntza inklusiboa, aniztasuna, konparazioa*

Este TFG, que se centra la comparación de los sistemas educativos de la CAV y Finlandia, ha tenido como eje la Educación Comparada. En él se ha comparado la respuesta que estos dos territorios ofrecen al tratamiento de la educación inclusiva. Éste es un trabajo de investigación que, mediante un análisis sistemático, ha analizado algunos elementos relativos a la inclusión en el ámbito educativo. El objetivo era comparar y conocer el tratamiento de la diversidad en estos dos lugares y, mediante ello, surgieron varias diferencias en la comprensión del mismo: mientras que Finlandia presenta una actitud reacia hacia la inclusión y se centra en la integración, la CAV muestra un avance hacia el proceso de inclusión. Sin embargo, la necesidad de cambio no sólo se percibe en la legislación finlandesa, sino también en la vasca. De ese modo, siguiendo el camino para conseguir la inclusión como derecho humano, ofreceremos a los alumnos la oportunidad de poder ser educados, también en la escuela, en la diversidad propia de la realidad social.

*CAV, Finlandia, educación inclusiva, diversidad, comparación*

This FDP based on the comparison between finnish and basque educational systems has been focused on Comparative Education. Here it has been compared the response that these two territories offer to the treatment of inclusive education. This is a research work and through a systematic analysis, some elements of inclusive education have been analysed. The aim was to compare and know inclusive education treatment in these places and, through this dissertation, some differences appeared regarding inclusive education understanding: while Finland, due to its resistant attitude towards inclusion, is focused on integration, the Basque Country shows an improvement in the process of inclusion. However, legislation change is not only necessary in Finland, but also in the Basque Country. In that way, following the path towards inclusion as a human right, students will have, in school as well, the opportunity to be educated in the diversity of social reality.

*Basque Country, Finland, inclusive education, diversity, comparison*

## Sarrera

Euskal Autonomia Erkidegoko eta Finlandiako hezkuntza-sistemen alderaketan datza Gradu Amaierako lan hau; zehazki, hezkuntza inklusiboaren trataeraren gaian. Gai honen hautaketa, Finlandian zein EAEn hezkuntza laguntza berezia behar duten ikasleei eskaintzen zaien trataera sakontasunean ezagutzeko interesetik dator; horrela, orokorrean eredutzat hartu izan den hezkuntza-sistema finlandiarraren aurrean, EAeko hezkuntza-sistema zein lekutan dagoen ohartu ahal izateko. Horretarako, erabilgarria zein interesgarria izango da bi hezkuntza-sistemek egoera horri erantzuteko erabiltzen dituzten neurriak ezagutzea eta legediaren printzipioak praktikan betetzen ote diren aztertzea.

Ikerketa honen helburu orokorra Finlandian zein EAEn eskola inklusiboaren inguruan ageri diren ezberdintasunak ezagutzea da. Legedien azterketatik abiatuz, hezkuntza-sistema bakoitzaren laguntzen kudeaketa ikertu da. Aldi berean, azterketaren elementu osagarritzat inkesta batzuk burutu dira, herrialde bakoitzeko irakasleek hezkuntza inklusiboarekiko duten jarrera ezagutzeko; bertan eskuratutako emaitzek errealitatea hobeto ulertzen lagunduko dute.

Gradu Amaierako Lan honek honako atal hauek jarraitu ditu. Lehenik, esparru teorikoan eta kontzeptualean hezkuntza inklusiboa definitu da eta horren inguruko kontzeptu garrantzitsuenak argitu dira; gainera, Finlandia eta EAE testuinguruan jarri dira, jarraian hezkuntza-sistema bakoitzeko elementu adierazgarrienak azaltzeko. Horrez gain, aurreikusten diren hipotesiak adierazi dira eta jarraitutako metodologia azaldu da, hartutako pausuak zehaztuz. Ondoren, lanaren garapenean konparaketarako elementuen datuak azaldu eta interpretatu dira; hau da, batetik, hezkuntza-legedia eta arau esparrua eta bestetik, laguntzen kudeaketa eta baliabide profesionalak. Bi elementu horien justaposizioa burutu da, puntu deigarrienak alboratuz; jarraian, konparaketan lortutako emaitzak aurkeztu dira. Amaitzeko, hipotesien egiaztapena burutu da eta ateratako ondorio orokorrak adierazi dira.

Lan honek etorkizunean ikertu daitezkeen hainbat bide irekita uzten ditu. Esate baterako, interesgarria izango litzateke eskola inklusiboarekiko irakasleek adierazten duten jarreraren ikerketan gehiago sakontzea. Ikerketa hori, analisirako elementuak ulertzeko erabilitako inkestekin jarraituz egin liteke.

## **1. Esparru teoriko eta kontzeptuala**

Atal honetan, lehenengo, hezkuntza inklusiboaren inguruko kontzeptu garrantzitsunak azaltzen dira; alde batetik, hezkuntza inklusiboaren definizioa eta oinarriak eta bestetik, integrazioa, inklusioa eta hezkuntza laguntza bereziaren kontzeptuak. Bigarren, Finlandia eta EAEko testuinguruaren eta hezkuntza-sistemen ezaugarriak aurkezten dira.

### **1.1. Hezkuntza inklusiboa**

Hezkuntza inklusiboaren oinarri teorikoa azaltzeko, lehenik eta behin, nazioarte markotik abiatuta, hezkuntza inklusiboa zer den definituko da eta horren oinarriak aurkeztuko dira. Jarraian, integrazioaren, inklusioaren eta hezkuntza laguntza bereziaren kontzeptuak argituko dira.

#### **1.1.1. Hezkuntza inklusiboaren definizioa eta oinarriak**

Eskola inklusiboa definitu eta deskribatu ahal izateko hainbat dira kontuan izan beharreko alderdiak. Izan ere, nazioarteko markotik abiatuz, XX. mendetik aldaketak eman dira hezkuntza inklusiboa ulertzeko moduan. UNESCOk, alegia, horren definizioan hainbat aldaketa egin ditu:

UNESCOren (1977, 11. or.) arabera, hezkuntza inklusiboa ezgaitasunak zituzten pertsonen bizitza hobetzean oinarritzen zen. “Es una forma enriquecida de educación general tendente a mejorar la vida de quienes sufren diversas minusvalías; enriquecida en el sentido de recurrir a métodos pedagógicos modernos y al material moderno para remediar ciertos tipos de deficiencias”.

Hamazazpi urte beranduago, 1994an, Bent Lindqvist adituaren hitzak hartuz, UNESCOk aldaketak egin zituen hezkuntza inklusiboaren definizioan; guztion hezkuntza defenditzean oinarritu eta hezkuntza haur guztien beharretara egokitu behar zela esan zuen:

El desafío consiste ahora en formular las condiciones de una “escuela para todos”. Todos los niños y jóvenes del mundo tiene derecho a la educación, no son nuestros sistemas educativos los que tienen derecho a ciertos tipos de niños. Es el sistema escolar de un país el que hay que ajustar para satisfacer las necesidades de todos los niños. (UNESCO, 1994, 28. or.).

2001tik aurrera ikasle-aniztasunari kalitatez eta bazterketarik gabe erantzuteko hezkuntza sistemarantz abiatu ziren. Gaur egun, hezkuntza inklusiboa giza eskubidetzat hartzen da, guztientzat den kalitatezko eskola non bazterketarik egiten ez den. Ikasle guztiak beharrezkoak dira, bakoitzaren ezberdintasunek irakaskuntza prozesua aberasten baitute. Hezkuntza-beharren alderdi zabalari erantzun egokiak eskaintzea da inklusioaren helburua. Hezkuntza inklusiboak, gainera, eskola arruntean ikasle zehatz batzuk integratzearen ideia ordez, ikasleen aniztasunari erantzuteko hezkuntza sistemak eta hezkuntza-testuinguruak

eraldatzeko ikuspegia dakar. Honen asmoa irakasleak eta ikasleak aniztasunaren aurrean eroso sentitzea da; arazo gisa hauteman ordeztu, ikas-irakaskuntza aberasteko erronka eta aukera bat bezala ulertzea bilatzen da (UNESCO, 2005).

Arnaizek (2005) adierazten duenez, eskola inklusiboa behar bezala aurrera eramateko oinarri orokor hauek kontuan hartu behar dira:

- Aniztasuna onartzen duten ikastetxeak
- Curriculum zabala, komuna eta malgua
- Gizartearen sektore guztien arteko kooperazioa
- Eskolan, gelan eta lan kooperatiboan zentratutako laguntza
- Irakaskuntza eta ikaskuntza interaktiboa

Era berean, Ainscowen (2005) hitzetan horrela definitzen da inklusioa:

- *Inklusioa prozesu bat da.* Ikuspegi horretatik, inklusioa aniztasunari erantzuteko etengabe modu egokiagoak bilatzean datza, diferentziatik ikasten saiatuz.
- *Inklusioak oztopoak identifikatzen eta ezabatzen jartzen du arreta:* bai politiketan bai praktika inklusiboetan hobekuntzak planifikatzean datza.
- *Inklusioa ikasle guztien asistentzia, parte-hartzea eta errendimendua da.* Asistentzia dagokio ikasleak ikasten duen lekuari, presentziaren ehunekoari eta puntualtasunari. Parte-hartzea, berriz, ikasleen iritzia kontuan hartuta eskolan daudenean haien esperientziaren kalitateari dagokio. Eta errendimendua dagokie eskolako programan zehar ikasleek izandako eskola-erantzutzei.
- *Inklusioak arreta berezia jartzen du baztertua izateko arriskuan dauden edo errendimendu egokia lortzen ez duten ikasle taldeengan.* Haien inklusioa lortzeko beharrezko neurriak hartu behar dira.

Eusko Jaurlaritzak (2012) dioena ondorioztat hartuz, inklusioa kalitatearen adierazlea dela esan daiteke; izan ere, ikasle guztiek hezkuntza jasotzeko giza eskubidea bermatzea dakar. Eskola inklusiboa sare bat da, zeinak guztiontzako eskola deritzon hezkuntza berri bati eusten dion.

### **1.1.2. Integrazioa, inklusioa eta hezkuntza laguntza berezia**

Hezkuntza inklusiboaren harira, ezinbestekoa da, alde batetik, inklusio eta integrazio kontzeptuak argitzea; izan ere, askotan zailtasunak eta gaizki-ulertuak ikusi ahal izan dira bi hauen inguruan aritzerako orduan. Bestetik, hezkuntza laguntza berezitat hartzen dena argitzea ere garrantzitsua da.

### 1.1.2.1. Integrazioa

Integrazioaren kontzeptua 1980ko hamarkadan sortu zen, hezkuntza berezietako eskola eta curriculumen segregazio-ereduaren alternatiba gisa. Horren helburua da premia bereziak dituzten ikasleentzat hartzen diren haurrak eskola arruntean sartzea.

Integrazioaren ereduaren aplikazioaren oinarriko elementuak, UNESCOren (2008) arabera, honako hauek izan dira eta izaten jarraitzen dute oraindik: ikastetxeen berregituraketa eta hobekuntza, ikasgela bereziak eta hezkuntza bereziko irakasleak areagotzea eskola arruntetan, premia bereziko ikasleen integrazioa ikasgela arruntean eta material pedagogikoa.

Integrazioaren prozesua, hezkuntza berezia berregitean oinarritu dela esan daiteke; hau da, eskola arruntean integratutako haurrak babestu arren, askotan hezkuntza bereziko banakako ikuspegi birgaitzailea hezkuntza arruntera eramaten da. Ikuspuntu honetatik, *premia bereziak dituen ikasle* etiketa duten ikasleentzat bakarrik hartzen dira neurriak eta egokitzapenak (UNESCO, UNICEF eta Hineni Fundazioa, 2003).

### 1.1.2.2. Inklusioa

Hezkuntza inklusiboaren kontzeptua, aldiz, integrazioarena baino zabalagoa da eta beste puntu batetik eraiki da: hezkuntza orokorretik eta eskola arruntaren sustraitik. Hezkuntza inklusiboak haur guztiek elkarrekin ikastea esan nahi du, baldintza pertsonalak, sozialak edo kulturalak zein ezgaitasun edo urritasunak alde batera utziz (UNESCO, 2008).

Era berean, eskolen egitura, funtzionamendua eta proposamen pedagogikoaren funtsa aldatzea esan nahi du, haur guztien hezkuntza-beharrei erantzuna emateko helburuarekin; horrela, ikasketa arrakastatsua bereganatzeko aukera izateaz gain, baldintza berberetan parte hartu ahal izango dute. Eskola inklusiboan ikasle guztiei haien beharrei egokitutako hezkuntza eskaintzen zaie, ez premia bereziak dituzten ikasleen taldean dauden ikasleei soilik.

Bestetik, UNESCOren (2008) arabera, sartzeko baldintzarik ez dagoen edota aukeraketa edo bereizketarik ez dagoen eskola eredu bat da hezkuntza inklusiboa; hezkuntzarako, aukera berdintasunerako eta parte hartzeko eskubideak benetan eraginkorrak izan daitezten. Alabaina, irakasle askok inklusioa haurrak hezten diren testuinguruaren esakune simple bat bezala ulertzen dutela aipatzen du Grossek (2004): eskola normalak, *eskola berezien* aurrean. Hala eta guztiz ere, gaur egungo beste hainbat ikuspegik definizio zehatz eta konplexuagoak eskaintzen dizkigute:

En el contexto de una visión más amplia de la integración, la educación inclusiva supone la formulación y aplicación de una vasta gama de estrategias de aprendizaje que respondan precisamente a la diversidad de los educandos. En este sentido, los sistemas educativos deben responder a las expectativas y necesidades de los niños y jóvenes teniendo en cuenta que la capacidad de ofrecer oportunidades reales de aprendizaje sobre la base de un esquema “rígido” de integración es muy limitada. (UNESCO, 2008, 10. or.).

Hezkuntza inklusiboaren eta integrazioaren arteko eztabaidak, beraz, erlazio zuzena du eskolek ikasle guztiak barne hartu beharraren ardura moralaren ulermenaren prozesuarekin (UNESCO, 2008).

Arenasek (2016) integrazio eta inklusioa honela ezberdintzen ditu:

<b>Eskola integratzailea</b>	<b>Eskola inklusiboa</b>
Diagnostikoa zentratua	Arazoen ebazpenean zentratua
Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleei zuzendua	Ikasle guztiei zuzendua
Berdintasunaren eta konpetentzien printzipioetan oinarritua	Ekitatearen, kooperazioaren eta elkartasunaren printzipioetan oinarritua
Sartzea partziala eta baldintzatua da	Sartzea totala eta baldintzarik gabekoa da.

*1. Taula: Eskola integratzailearen eta inklusiboaren arteko ezberdintasunak*

*(Iturria: Arenas, 2016)*

### 1.2.2.3. Hezkuntza laguntza berezia

Hezkuntza laguntza bereziaren (HLB) kontzeptuak honako hau adierazten du: testuinguru normalizatu batean, arrazoi ezberdinengatik ikaskuntzan aurrera egiteko trabak aurkitzen dituen edozein ikaslek beharrezkoak diren laguntza eta baliabide zehatzak jasotzea. Laguntza eta baliabide zehatz horiek aldibanakoa edo iraunkorrak izan daitezke (UNESCO, UNICEF eta Hineni, 2003).

Kontzeptu horrek, ezberdintasunak ulertzeko modu berria izateaz gain, irakaskuntzan aldaketa sakona eta eskolatik kanpoko bestelako baliabide osagaiak erabiltzea suposatzen du. Izan ere, ikasle orok era bateko edo besteko premiak ditu eta, ondorioz, curriculuma ikasle bakoitzaren beharrietara egokitzea ezinbestekoa da. Horrela, ikasle orori erantzun egokia emango zaio; hezkuntza laguntza bereziak dituen ikasleari hezkuntza-sistema bertan erantzuna emanez (Eusko Jaurlaritza, 2012).

HLB behar duten ikasle batzuek neurri, baliabide edota laguntza zehatz batzuekin curriculum arrunta jarraitzeko ahalmena izango dute; laguntza horiei esker ikasketa prozesua zein haien autonomia ere erraztuko da. Bestelako hezkuntza laguntza berezia behar duten ikasle batzuek, ordea, curriculum egokitzapenak behar izango dituzte; beste kasu batzuetan, aldiz, hezkuntza gertatzen den hezkuntza-testuinguruaren, gizarte egituraren edota afektibitate-giroaren moldaketak ere egin behar dira. Beraz, hezkuntza laguntza bereziaren kontzeptuak, ezgaitasunak dituzten edota nahaste larriak dituzten ikasleez gain, beste hainbat



arrazoiengatik, laguntza edo baliabide zehatzak behar dituzten ikasleak ere barne hartzen ditu (Eusko Jaurlaritza, 2005).

Azken horri dagokionez, aldaketa nabariak izan dira mundu-mailan hezkuntza laguntza bereziaren kontzeptuak biltzen dituen ikasleen artean. Izan ere, orain dela gutxi arte, soilik ezgaitasunak eta nahaste larriak zituzten ikasleak ziren laguntza eta baliabide zehatz horien hartzaile; gaur egun, ordea, herrialde batzuetan oraindik berdin jarraitzen badute ere, orokorrean kontzeptua zabaldu egin dela ikus daiteke (UNESCO, UNICEF eta Hineni, 2003).

## **1.2. Testuingurua eta hezkuntza-sistema**

Jarraian Finlandia eta Euskal Autonomia Erkidegoko testuinguruaren analisi orokorra azaltzen da. Izan ere, egoera ekonomikoak, kulturalak, politikoak eta sozialak lotura zuzena du bakoitzaren hezkuntza-sistemen oinarri eta jardunarekin.

### **1.2.1. Testuinguruak**

#### **Euskal Autonomia Erkidegoa**

Euskal Autonomia Erkidegoan 2.175.819 biztanle ageri dira, 1.119.441 emakume eta 1.056.378 gizonezko. Horietatik, 196.589, hau da, %9 atzerritarrak dira (Ikuspegi, 2018).

Egoera ekonomikoari dagokionez, BPGeko (Barne-Produktu Gordineko) bolumenean estatuko ekonomiaren 5. postuan dago EAE. 33.088 euroko BPG per capita izanik, estatu mailako bizi-mailan 2. postuan dago, hortaz, bizi-maila egokian aurkitzen dela uler daiteke. Gainera, BPGren zor-mailan %14,1 inguruan kokatzen da. (Datos Macro, 2017). EAEko langabezia %10,8an aurkitzen da; horren aurrean, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak dioenez, proposamenak garatuko dira gazteen aldeko apustua eginez eta familiaren aldeko politikak sustatuz (Lanbide, 2018).

Egoera kulturalari erreparatuz, EAEn bi hizkuntza ofizial daude, euskara eta gaztelania. Herritarren %33,9a euskal hiztuna da, %19,1 euskal hiztun pasiboa eta %47 gaztelaniadun elebakarra (Eusko Jaurlaritza, 2016). Ofizialki, hezkuntza-alorreko etapa guztien heziketa-hizkuntza gisa Euskara eta Gaztelania badaude ere, euskal hezkuntzan hizkuntza-eredu ezberdinak daude: A eredia (gaztelania hizkuntza oinarri gisa), B eredia (proportzio berean euskara eta gaztelania) eta D eredia (euskara hizkuntza oinarri gisa).

Erljioei dagokienez, erlijio-askatasuna badago EAEn. Euskal biztanleriaren %26a katoliko praktikatzailea da, %47a katoliko ez-praktikatzailea, %2a beste erlijio baten fededuna eta %25a atea. (Eusko Jaurlaritza, 2012)

Gainera, esan beharra dago azken urteetako heterogenotasuna dela eta, alderdi honetan erronka handiak sortu direla, batez ere, hezkuntzako alorrean.

EAEko testuinguruari amaiera emateko, politika alderdiei dagokienez, horiek hezkuntzan izandako indarra azpimarratzea ezinbestekoa da; estatuko Gobernu aldaketek eragina izan baitute hezkuntza-jardunean (Eurydice, 2017). Estatuak hezkuntza-legedia ezberdinak martxan jarri izanak, politika alderdiko zein hezkuntzaren inguruko ezegonkortasuna sortu du, estatu mailan eta, ondorioz, EAEn. Izan ere, lehenengo lege demokratikotik, Gobernuan izandako PP eta PSOE alderdi politikoen txandaketan hezkuntza-legeen aldaketa multzoa eman da: 1990ko Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorraren Lege Organikoa (LOGSE), 2002ko Hezkuntzaren Kalitatearen Lege Organikoa (LOCE), 2006ko Hezkuntza Lege Organikoa (LOE) eta gaur egun dugun 2013ko Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoa (LOMCE). (Eurydice, 2017). Hala eta guztiz ere, 1979an onartutako Autonomia Estatutuak edo *Gernikako Estatutuak* askatasuna eta autogobernurako autonomia eskaini zion Euskal Autonomia Erkidegoari, beste gauzen artean, hezkuntzaren alorreko kudeaketa modu deszentralizatuan burutu ahal izateko.

### **Finlandia**

Demografikoki, 5.503.297 biztanle ageri dira Finlandian, 2.790.970 emakume eta 2.712.327 gizonezko; horietatik 315.881 (%5,76) atzerritarrak dira (Datos Macro, 2016).

Finlandiak egoera ekonomiko ona duela esan liteke, BPGeko bolumenean ekonomiaren 45. postuan baitago. 2017an, 40.600 eurokoa izan zen finlandiarren BPG per capita, ranking-eko 17. postua lortuz; beraz, beste herrialdeekin alderatuz, bizi-maila onean aurkitzen da. Hala ere, BPGren zor mailan %61,4 inguruan kokatzen da; ondorioz, neurriak hartzeko egoeran aurkitzen da, hori bikoiztu ez dadin (Datos macro, 2017).

Historiari erreparatuz, finantza-krisialdi globala zein euro zonaren krisialdiari aurre egiteko gai izan da; zeregin ekonomikoari, lehiakortasunari eta berrikuntzari esker. 2016an, krisialditik irteten hasi zen baina badaude oraindik hainbat erronka krisialdiak izandako inpaktu sakon eta luzea atzean uzteko. Bestalde, 2017ko lehentasuna izan da langabeziari (%8,2) eta sektore industrialaren indartzeari erantzuna ematea, alderdi honetan pairatzen ari den lehiakortasun falta dela eta (Banco Santander, 2016).

Egoera kulturalari dagokionez, Finlandiako hizkuntza ofizialak finlandiera eta suediera dira. Hala ere, azken urteetan, beste hizkuntza batzuen erabilera handitu da. Zehazki, biztanleriaren %88,7ak finlandieraz hitz egiten du, %5,4ak suedieraz eta, azkenik, %0,6ak beste hizkuntza batzuk erabiltzen ditu (Eurydice, 2016). Suediera Finlandiako eremu batean kontzentratuta badago ere, agintaritzak finlandiera bezainbeste erabiltzen du. Herrialdean, gainera, Sami (laponiera) deritzon eskualdeko-hizkuntza badago eta 2000 pertsonengandik ama-hizkuntza gisa erabilia da; hau da, biztanleriaren %0,04ak hitz egiten du. Ipar

Finlandiako biztanleria honek, gizarte-zerbitzuak bere ama-hizkuntzan jasotzeko eskubidea du (Eurydice, 2016). Ofizialki, hezkuntza-alorreko etapa guztien heziketa-hizkuntza gisa finlandiera edo suediera daude. Hala ere, Sami hitz egiten duten eremuetan, haien heziketa-hizkuntza bere ama-hizkuntza da (Eurydice, 2016).

Erljioei dagokienez, Finlandiak erlijio-askatasuna badu ere, erlijio nabarmenenak honako hauek dira: eliza ebanjeliko-luteranoa eta eliza ortodoxoa, zeinak zerga-eskubidea duten. Biztanleriaren gehiengoa, %75,2a zehazki, eliza ebanjeliko-luteranoko kide den bitartean, eliza ortodoxoko kideak biztanleriaren %1a da, beste %23,6 beste edozein erlijio kide delarik (Eurydice, 2016).

Aniztasunaren aldetik, esan beharra dago bizi diren homogeneousuna dela eta, alderdi honetan ez dela erronka handirik sortu.

Testuinguru finlandiarrarekin amaitu baino lehen, esan beharra dago Finlandiako hezkuntza ez dela beste instituzio bat soilik; izan ere, alderdi-politiko guztiak ados jartzen dira hezkuntza-jarduna nolakoa izan beharko den gaiaren inguruko ideiekin eta hezkuntza-erabakiekin bat etortzeko. Estatuko gai honetan hezkuntza-konpromiso luzea dute alderdi-politikoek, hurrengo hauteskundeetan aldatu ezin delarik (Évole, 2013).

### **1.2.2. Hezkuntza-sistemak**

#### **Hezkuntza-sistema EAEn**

Eskola publikoek, itunpekoek eta pribatuek osatutako euskal hezkuntza-sistemaren egitura honela antolatzen da:

- Haur Hezkuntza
- Lehen Hezkuntza
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
- Batxilergoa edo Erdi-mailako lanbide-heziketa
- Unibertsitatea

2017an EAEn eskolatutako 384.792 ikasleetatik, 129.432 ikasle Lehen Hezkuntzan aurkitzen dira: 66.883 hezkuntza publikoan eta 62.549 hezkuntza pribatuan. Gainera, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasleetatik, 499 Hezkuntza Bereziko ikastetxeetan eskolatutakoak dira: 142 publikoan eta 357 pribatuan. Horrez gain, Lehen Hezkuntzako etapako ratioei dagokienez, ikasle/irakasle ratioa 13,3koa da eta ikasle/ikasgela ratioa 19,5an aurkitzen da. (Eustat, 2017)

#### **Finlandiako hezkuntza-sistema**

Finlandiako hezkuntza-sistemaren egitura honako hau da:

- Haur Hezkuntza
- Lehen Hezkuntza
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
- Bigarren mailako goi-mailako irakaskuntza orokorra (Batxilergoa) edo Lanbide-heziketa
- Hirugarren mailako irakaskuntza politeknikoa edo unibertsitatea.

Finlandian Lehen Hezkuntza 7 urterekin hasten da eta etapa honetako eskolatzeari dagokionez, 2015ko datuei erreparatuz, 361.413 ikasle matrikulatu ziren. Ikasle horietatik, 7.608 ikasle doaz Hezkuntza Bereziko ikastetxeetara. Horrez gain, ikasle/irakasle ratioa EAEn antzekoa da: 13,32 ikasle irakasle bakoitzeko eta ikasle/ikasgelaren batezbestekoa 19 ikasle da (European Agency for Special Needs, 2015).

Hezkuntza-sistema diru publikoz finantzaturako eskualdeetako eskoletan oinarritzen da. Lehen Hezkuntza guztiz doakoa da; hau da, ikasleek ikas-materialak, janaria, sendagilearen eta dentistaren arreta eta, behar izan ezker, garraioa bezalako zerbitzuak dohainik jasotzen dituzte (Finnish National Agency for Education, 2018).

Hezkuntzaren kudeaketari dagokionez, estatuko zuzendaritza nagusiak hainbat alderdi antolatzen baditu ere (hezkuntzaren lehentasunak, ordu minimoen esleipena, curriculum eta diru-laguntzak), eskualde bakoitzean lekuko erabaki batzuk autonomiaz hartzen dira: tokiko curriculum, diru-laguntzen banaketa, kontratazioak, irakasleen “ebaluazioa”, etab. Hori kontuan hartuz, udalek haien kontura, tokiko hezkuntza antolatzen dute (Finnish National Agency for Education, 2018).

### 1.2.2.1. Hezkuntza adierazleak

Analisia burutzeko EAEn eta Finlandiako hezkuntza adierazle<sup>1</sup> deigarrienak honako hauek dira: Ikasle/irakasle ratioa, eskolatutako ikasleak, hezkuntza laguntza berezia behar duten ikasleak eta hezkuntza bereziko ikastetxeetan eskolatutako ikasleak.

Alde batetik, Finlandian zein EAEn ikasle/irakasle ratioa parekoa da: EAEn 13,3 ikasle irakasle bakoitzeko eta Finlandian 13,32 ikasle. Bestetik, ikasle/ikasgela ratioan ere antzeko mailan daude: EAEn ikasgeletan batezbestekoz 19,5 ikasle dauden bitartean, Finlandian 19 ikasle ageri dira. Ikasle eskolatuen kopurua, aldiz, oso ezberdina da; biztanleria kopurua handiagoa baita Finlandian (361.413 ikasle), EAEn baino (129.432 ikasle). Hori horrela, eskolatutako ikasle kopuru horren barne, hezkuntza laguntza berezia behar duten ikasle bikoitza aurkitzen da EAEn (%12,87), Finlandian baino (%6,39). Edonola ere, Hezkuntza Bereziko ikastetxeetan eskolatutako HPB dituzten ikasleen kopurua da deigarriena; izan ere,

---

<sup>1</sup> Ikusi 1. eranskina

<sup>2</sup> Ikusi 2. eranskina

Finlandian horietatik %32,93 doa Hezkuntza Bereziko ikastetxeetara; EAEn, ordea, %2,99 soilik (Eustat, 2017; Euskadiko Eskola Kontseilua, 2016; European Agency for Special Needs, 2016).

## 2. Hipotesiak

Esparru teorikoan eta kontzeptualean azaldutakoa kontuan hartuz, ikerketa honetan honako hipotesi hauek planteatzen dira:

- EAEn legediak inklusioari erantzuna emateko aukera handia eskaintzen duen bitartean, Finlandiako hezkuntza legeek ez dute eskola inklusiboaren bidea jarraitzen.
- EAEn hezkuntza laguntza bereziak behar dituzten ikasleentzat laguntzen kudeaketak inklusioa bermatzen du; laguntzen kudeaketa finlandiarrak, ordea, integrazioa du oinarritzat.

## 3. Metodologia

GrAL honek, ikerketa modalitatea duen heinean, alderaketa sistematikoa aurrera eramateko Hezkuntza Gonbaratuaren metodologia jarraitzen du. 1958rako, dagoeneko, Nicholas Hans adituak Hezkuntza Gonbaratua honela definitu zuen: “hezkuntza-sistema ezberdinen urratsez urratsezko azterketa; haien ezberdintasun eta antzekotasunak ulertzeko ikuspuntua duena”. Fraserrek eta Brickmanek (1968) Hezkuntza Gonbaratua definitzeko diotenez, analisisian oinarritzen da (hezkuntza-sistemen zein arazo sozial, politiko, ekonomiko, kultural, ideologiko eta abarrena); aditu horien arabera, helburua herrialde ezberdinetan hezkuntzan dauden berdintasun eta ezberdintasunak nabarmentzen dituzten faktoreak ulertzea da. Hori kontuan hartuz, ikerketa honen oinarria hezkuntza-sistemen inguruan ardazten diren elementuen arteko konparaketa da eta izaera pedagogiko-soziologikoa jarraitzen du.

Alderaketa sistematiko honetarako, alde batetik, Hezkuntza Gonbaratuaren erabileran Hilkerrek (1964) proposatutako metodoaren pausu hauek jarraitu dira: datuen azalpena eta interpretazioa, datuen justaposizioa eta datuen konparazioaren emaitzak (ezberdintasun eta berdintasunen egiaztapena). Bestetik, alderaketan jasotako emaitzen ulermenerako inkesta bat burutu da.

Lehenik, esparru teoriko eta kontzeptualean, alderatzen diren bi errealitateen testuinguruen eta hezkuntza-sistemen deskripzio kualitatiboa burutu da, baita analisirako interesgarriak diren hezkuntzako-adierazleen deskripzio kuantitatiboa ere. Testuinguruan jarri ondoren, hezkuntza-sistema bakoitzaren barne den hezkuntza inklusiboaren trataeraren gaian, bi elementu nagusi aztertu dira: alde batetik, hezkuntza legedia eta arau esparrua eta bestetik, laguntzen kudeaketa eta baliabide profesionalak. Elementuen azalpenaren eta

interpretazioaren ondoren, horiek elkartu eta elementuen justaposizioa burutu da taula batean adieraziz. Azkenik, justaposizioaren ondoriozko ezberdintasun eta antzekotasunen emaitzak aztertu dira eta ondoren, azterketaren ondorioan aurreikusitako hipotesiak egiaztatu eta ezeztatu dira.

Alderaketa sistematikorako erabilitako materiala informazio iturri ezberdinetatik lortu da. Lan bibliografikoaren bilaketa alde batetik, EHUko liburutegian burutu da; bestetik, Interneteko datu base zientifikoan (hala nola, Google Scholar eta Dialnet bezalako plataformen) bitartez eskuratutako artikulak akademikoak, aldizkariak eta programak erabili dira ere.

Bestalde, hezkuntza inklusiboaren trataeraren gaian alderatutako elementuen osagarria den aipatutako inkestak<sup>2</sup> irakasleek eskola inklusiboarekiko duten jarrera adierazten du. Inkesta hori Finlandiako Metsäkylän Yhtenäiskoulu (Ylöjärvi, Tampere) eta Karjalan Yhteiskoulu (Laakso, Helsinki) eskoletako eta EAeko Deustuko Ikastolako (Bilbo, Bizkaia) eta Amara Berri ikastetxeko (Donostia, Gipuzkoa) irakasleei burutu zaie. Inkesta honekin, modu orientagarrian irakasleek inklusioarekiko duten jarrera ikustea bilatzen da, aurreko bi elementuen ulermen faktore gisa erabiltzeko. Garrantzitsua da aipatzea, horrekin ez dela, inolaz ere, Finlandiako zein EAeko irakasleen jarrera orokortzea bilatzen.

## **4. Lanaren garapena: analisi konparatiboa**

### **4.1. Datuen azalpena eta interpretazioa**

Alderaketarekin hasteko, lehenik, EAeko zein Finlandiako hezkuntza legedia eta arau esparrua azaltzen da. Ondoren, lurralde bakoitzeko laguntzen kudeaketa eta baliabide profesionalak azaldu eta interpretatzen dira.

#### **4.1.1. Hezkuntza legedia eta arau esparrua**

Hezkuntza legedia eta arau esparruak hezkuntza inklusiboari teoriarik ematen zaion erantzuna erakusten du.

### **Euskal Autonomia Erkidegoa**

EAeko hezkuntza bereziko hezkuntza-lege eta arau esparruaren garapena azaltzen da jarraian:

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Bereziko Planak (1982), hezkuntza bereziko irakaskuntzak arautu zituen EAEn. Ordura arteko hezkuntza bereziaren zerbitzuen filosofian eta egituran aldaketa garrantzitsuak planteatzen zituen, erreferentzia-puntua eskola

---

<sup>2</sup> Ikusi 2. eranskina

arrunta zelarik. Horren inguruan sortu da ikasle guztien integrazioari laguntzeko baliabideen oinarritzko azpiegitura. Ezgaitasunak dituztenen eskolatzea ahalik eta gutxien murrizten duen hezkuntza-inguruan egin behar dela ezartzen du legeak.

1987an, Heziketa Bereziko Batzordea sortu zen eta “Eskola muinbakar eta integratzailea” txostena egin zuten. Informe Warnock (1981) lanaren filosofian<sup>3</sup> oinarritutako txosten horretan, hezkuntza-jardueraren araei buruzko hausnarketa, proposamenak eta gomendioak jaso ziren (ISEI, 2015).

118/1998 DEKRETUA ekainaren 23ko legeak, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna eskola muinbakar eta integratzailearen esparruan antolatzen du: hezkuntza-premia iraunkorrak<sup>4</sup> eta aldi baterakoak<sup>5</sup>.

1998ko uztailaren 24ko ERABAKIAk, aparteko gaitasunak edukitzeagatik heziketa-premia bereziak dituzten ikasleei hezkuntzaren aldetik eman beharreko erantzuna nondik nora bideratu arautzen du.

1998ko uztailaren 24ko AGINDUAK, HPBak dituzten ikasleentzat curriculumera sartzeko egokitzapenen eta curriculumaren norbanako egokitzapen nabarien baimena arautzen du.

1998ko uztailaren 30eko AGINDUAN, IV, VI eta VII atalburuetan arautzen da Gela Egonkorretan eskolatzea, Hezkuntza Bereziko Ikastetxeetan eskolatzea eta beharrian bereziak dituzten ikasleentzako kanpo-zerbitzuak (talde multiprofesionala).

2001eko AGINDUAK, martxoaren 27koak, Prestakuntza eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroen (Berritzeguneen) funtzionamendua eta antolamendua arautzen du. Dekretu berean Berritzeguneen eginkizun nagusiak definitzen dira, aholkularitza, prestakuntza eta berrikuntza, esperimentazio eta ikerketa arloetan.

2005ean “Hezkuntza inklusiboa ebaluatzeko eta hobetzeko gida. Hezkuntza-zentroetan ikaskuntza eta parte-hartzea garatuz” argitaratu zen, “Index for Inclusion” izenekoaren moldaketa moduan. Gida horrek bultzada handia eman dio eskola inklusiboari (Eusko Jaurlaritza, 2012).

175/2007 DEKRETUAK EAeko Oinarritzko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezarri zuten. Bertan, Aniztasunaren Tratatari zuzendutako IV. kapituluko neurriek xede hauek ezartzen dira: ikasleen berariazko hezkuntza-premiei erantzutea eta ikasleek curriculumean

---

<sup>3</sup> Lan horretan, lehenengoz, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak terminoa jasotzen da.

<sup>4</sup> Hezkuntza-premia iraunkorrak: adimen-ezgaitasunak edo/eta garapenaren nahaste orokortuak, gorreriak eta entzuteko urritasunak, ikusteko urritasunak, mugitzeko urritasunak eta garun-paralisiak, eta goi mailako gaitasun intelektualak eragindakoak.

<sup>5</sup> Aldi baterako hezkuntza-premiak: gizarte- edo kultura-egoera ahulek eragindakoak, eskola-moldegabezia larria, epe luzeko ospitaleratzea eta gaixotasuna, ikasketa-maila motelak eta ikaskuntza-zailtasun garrantzitsuak, eta inteligentzia-maila motelak eragindakoak.

jasotako oinarrizko gaitasunen gutxieneko mailak eskuratzea. Neurri horiek<sup>6</sup> (24. artikulua) ikasleen hezkuntza-premiei erantzuteko haien ikasteko interesa, motibazioa eta ahalmena aintzat hartuta, ingurune normalizatu eta inklusibo batean ikasi beharra azpimarratzen dute.

2012an Eusko Jaurlaritzak “Eskola Inklusiboaren esparruan Aniztasunaren Trataeraren Plan Estrategikoa” argitaratu zuen eta bertan, hezkuntza-premia bereziak dituen ikasletzat ezgaitasuna edota portaera-arazo larriak dituztenak hartzen dira. Plan horrek inklusioaren bidean aniztasunaren arretari bultzada handia eskaini dio.

2015an euskal hezkuntza-sistema hobetzeko “Heziberri 2020” plana martxan jarri zen. Hiru egitasmoz osatzen da: Hezkuntza eredu pedagogikoaren markoa, EAEko curriculum Dekretuak eta Euskal Hezkuntza Legerantz hurbiltzeko urratsak ematea. Plan honek inguru normalizatu eta inklusiboan ikasle guztien oinarrizko kompetentzien garapen gorena lortzea du helburu. Hori dela eta, ikastetxeetan berariazko hezkuntza-laguntza behar duten ikasleak garaiz hautemateko mekanismoak ezarri behar direla dio (Eusko Jaurlaritza, 2015).

Bestetik, 236/2015 DEKRETUAK, abenduaren 22koak, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta ezartzen du. VI. kapituluan, hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleentzako aniztasun-neurriak ezartzen ditu. Zehazki, hezkuntza-premia bereziak dituztelako pedagogia terapeutikoan espezializatutako irakasleak behar dituzten ikasleak aipatzen ditu 37. artikuluan; 39. artikuluan, hezkuntza berariaz indartzeko proiektuak; eta, 40.ean, curriculum-aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programak (Eusko Jaurlaritza, 2015).

Aurkeztutako lege eta araudi horiek dira EAEn hezkuntza laguntza premiak dituzten ikasleei erantzuna eskaintzen dietenak.

## **Finlandia**

Hezkuntza inklusiboari erantzuteko lege finlandiar garrantzitsuenak honako hauek dira (Halinen eta Järvinen, 2008):

Oinarrizko Hezkuntza Legeak (1983) denentzat hezkuntzarako eskubidea ezarri zuen. 1985eko Oinarrizko Curriculumean, hezkuntzaren bereizketa azpimarratu zen; hau da, beharrezko kasuetan, adin eta hezkuntza-gaitasunen arabera ikasleei hezkuntza-programak gauzatzea arautu zen.

Ezgaitasunak dituzten haur guztiek beste hurrekin ikasi behar dutelaren ideia sustatzean, Finlandiako hezkuntza bereziak integrazioaren eta normalizazioaren bideari ekin

---

<sup>6</sup> Neurriak honako hauek dira: ikasle-talde arruntean laguntza ematea, talde-banaketa, indartze-neurriak, curriculumaren egokitzapenak, irakasgaiak jakintza-arlotan jasotzea, ikasle-taldeetako irakasleen kopuruak murrizteko, eskolatze osagarriko programak, hezkuntzako esku-hartze orokorreko eta espezifikoeko proiektuak, curriculum anitzeko programak, hezkuntza-laguntza espezifikoak behar duten ikasleen tratamendu banakatua egiteko programak eta unitate bakoitzeko irakasleen ratioak handitzea.



zion. Ezgaitasun eta hezkuntza-zailtasunei erantzuna ematen dieten lege eta hezkuntza-neurri batzuk honako hauek dira: Batetik, 380/1987 Act eta 759/1987 Decree on Services and Assistance for the Disabled; lege-dekretu honek, ezgaitasunak dituzten ikasleentzako zerbitzuen aurrekontuei erantzuten die. Bestetik, 726/1999 Decree on the Amendment of the Rehabilitation Allowances; dekretu honek, birgaitze-planen elaborazio eta ikerketarako neurriei erantzuten die.

1998an, 628/1998 Basic Education Act eta 852/1998 Decree deritzoten Oinarrizko Hezkuntza Legearen eta Dekretuaren zuzenketa eman zen. Legeak, geroztik, ez du hezkuntza premia bereziei buruz hitz egiten, baizik eta ezgaitasunak dituzten ikasleei eta esparru ezberdinetan (matematika, irakurmena, idazmena, etab.) ikasketa-zailtasunak dituzten ikasleei buruz.

Gainera, hezkuntza laguntza berezien beharren antolakuntzarako neurri batzuk hartu ziren ere: 1290/1999 Act on Children's Day Care, 1291/1999 Act on Children's Home Care and the Private Care Allowance eta 1292/1999 Act on Client Fees in Social Welfare and Health Care.

2001ean Lehen Hezkuntzako helburu orokorrak zehatzago definitu ziren eta eskola-orduak berrantolatu ziren. Aldaketa horiek ikasle guztiak, garapenaren nahaste larriagoak dituztenak barne, hezkuntzaren eremu berean kokatzen ditu.

2004ko curriculumean arreta goiztiarra zehazten da Finlandiako hezkuntza bereziaren printzipio gisa. Bertako zehaztapenak heziketa-zailtasunen arreta goiztiarra eta laguntza-neurrien kudeaketaren garrantzia azpimarratzen du, ikasleen hezkuntza-garapenean izan ditzaketen inpaktu negatiboak saihesterako orduan.

2011eko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Curriculum zuzenketak, laguntza goiztiarra sendotzeaz gain, hezkuntza-laguntzarako eskubideak indartzeko hiru maila ezberdinetako laguntza zehazten ditu: laguntza orokorra, laguntza intentsiboa eta laguntza berezia.

Aurkeztutako lege eta araudi horiek dira Finlandian hezkuntza-zailtasunak dituzten ikasleei erantzuna eskaintzen dietenak.

#### **4.1.2. Laguntzen kudeaketa eta baliabide profesionalak**

Jarraian, EAEn zein Finlandian laguntzen kudeaketa nola burutzen den eta baliabide profesionalak zeintzuk diren azaltzen da.

## Euskal Autonomia Erkidegoa

EAEn hezkuntza laguntza berezia behar duten ikasleen sailkapen<sup>7</sup> zehatza jarraitzen da. Bertako sailkapeneko sei taldeek, laguntza mota ezberdina jasotzen dute haien beharretara egokitzen dena. Jarraian, laguntza mota horiei buruz hitz egiten da eta baita hezkuntza premiak dituzten ikasleei laguntza eskaintzen dieten baliabide profesionalei buruz ere.

175/2007 DEKRETUak IV. kapituluan aniztasunari trataera<sup>8</sup> eskaintzeko zehaztutako laguntza mota ezberdinek norbanako curriculum egokitzapena dute ardatz. Hori curriculumaren derrigorrezko elementuen aldaketa garrantzitsuan datza: arloko, zikloko edo etapako helburuak egokitzea edo bertan behera uztea. Norbanako Curriculum Egokitzapena burutzeko, hala ere, honako baldintzak hauek betetzea ezinbestekoa da: HPB duen ikaslea izatea, neurri arruntak (indartzea, errepikapena...) nahikoak ez izatea, curriculumeko-mailaren eta ikaslearen curriculum-egoeraren arteko aldea handia izatea eta ez-ohiko neurria izatea.

Curriculum Egokitzapenen barnean, Norbanako Curriculum Egokitzapen (NCE) Globala edo Arlo mailako Norbanako Curriculum Egokitzapena (NCE) bereizten dira (Eusko Jaurlaritza, 2017). Alde batetik, NCE globala, arlo ezberdinetan oinarritzotzat jotzen diren helburu orokorrak eta edukiak bete ezin direnean ematen da eta, Lehen Hezkuntzan, NCE nabariaren curriculum-erreferentea ikaslea eskolatu aurreko zikloa edo etapa izaten da. Gainera, curriculumeko-mailaren eta ikaslearen curriculum-egoeraren arteko aldea bi kurtsokoa izan behar da. Bestetik, arlo mailako NCEek curriculum-eremuren bati edo batzuei besterik eragiten die. Ez dira etapako helburuak aldatzen, arlo zehatz bateko edo batzuetako helburu, eduki eta ebaluazio-irizpideak baizik (Eusko Jaurlaritza, 2018).

Egoera pertsonalagatik eskaintako neurriak nahikoak ez diren egoeretan, badira beste baliabide batzuk: ospitaleko ikasgelak, non 2014-2015 ikasturtean 1.873 ikaslek jaso zuten arreta; 207 ikaslek etxeko arreta; eta, bestetik, 54 ikaslek arreta terapeutiko-hezigarria (Euskadiko Eskola Kontseilua, 2016).

Hezkuntza-laguntzaren berariazko premia handienak dituzten ikasleen multzo bat Gela egonkorretan<sup>9</sup> eta Zereginen Ikaskuntza getetan eskolatzen da. Egoera horretan 2014-2015 ikasturtean, guztira 1.212 ikasle egon dira; horien artean 474 Haur eta Lehen Hezkuntzako gela egonkorretan (Euskadiko Eskola Kontseilua, 2016). Hala ere, ikasle horien kalitatezko hezkuntza eskola arruntean lortzen ez denean, Hezkuntza Bereziko ikastetxeetan ematen zaie erantzuna.

---

<sup>7</sup> Ikusi 3. eranskina.

<sup>8</sup> Ikusi 4. eranskina

<sup>9</sup> Gela egonkorrek, Hezkuntza Bereziko gela gisa ofizialki sortu ziren gelak dira eta hauetako batzuk Psikosia eta bestelako Garapenaren Nahaste Orokorrak dituzten ikasleei arreta emateko bereziki sortu ziren. Ezohiko baliabidetzat hartzen da eta eskola arrunten barnean kokatzea bilatzen da (Sainz, 1998).

Baliabide profesionalei dagokienez, honako hauek aurki daitezke: Pedagogia Terapeutikoko (PT) irakasleak, Entzumen eta Hizkuntzako (EHI) irakasleak, Hezkuntza Laguntzailea (HL) edo hezitzaile espezialistak, fisioterapeutak etab. Espezialista horiei esker banakako arreta modu ezberdinetan antolatu daiteke, bai ohiko ikasgela barruan eta baita ikasgelatik kanpo ere. 2014-2015 ikasturteetako datuei erreparatuz, ikastetxe publikoetan 960 PT eta ikastetxe itunpekoetan 447 zeuden. EHIak 121 izan ziren publikoan eta, itunpekoetan, berriz, 25 soilik. Azkenik, Hezkuntza Laguntzaileak 697 izan ziren publikoan eta 427, berriz, pribatuan. (Euskadiko Eskola Kontseilua, 2016).

Ikastetxe kanpoko baliabideei dagokienez, Gizarte zerbitzuak, Osasun zerbitzuak, eta Hezkuntza Zerbitzuak (Berritzeguneen eskutik) ditugu.

## **Finlandia**

Finlandiako 2010eko Haur eta Lehen Hezkuntzako Curriculum zuzenketak, laguntza antolatzeko modu berria ekarri zuen. Laguntza goiztiarrean oinarritzen da, arazoek hazkuntza eta azalartzea saihesteko. Arreta goiztiar hori Haur Hezkuntzan hasten da.

Gainera, laguntza jasotzeko ez da hezkuntza premia bereziak izatearen diagnostiko formalik behar. Horrek, ahalik eta azkarren esku hartzeko aukera eskaintzen du.

Laguntza hiru mailatan antolatzen da Finlandian: Laguntza orokorra, laguntza intentsiboa eta laguntza berezia (Pirttimaa, 2016).

Laguntza orokorra (*general support*) ikasle ororen esku dagoena da eta ikasgela arruntetan ematen da irakasle tutorearen eskutik. Orientazioaz gain, beharrezko alorrean indartzea eskaintzen zaio ikasleari. Lehen Hezkuntzan laguntza mota hau ikasleen %47ak jasotzen du (Statistics Finland, 2016).

Laguntza intentsiboa (*intensified support*) ikasgela arruntean tutore edo hezkuntza bereziko irakasleak emana da. Honako laguntza eskuratzeko, gurasoekin hitz egiten da lehenago, haien onarpena behar baita. Laguntza mota honetan, bereizketa pedagogikoa eta hezkuntza plan zehatza burutzen da. Hala ere, ez du ikaslearengan eragin iraunkorrik, beti buelta daiteke laguntza orokorrera. Normalean, laguntza intentsiboa behar duten ikasleek indartze saioak jasotzen dituzte, tutoreen edota beste irakasleen eskutik; batzuetan indibidualki eta beste batzuetan talde txikietan eskola-jardunaldiaren ondoren. Ikasketazailtasunak dituzten ikasleek hezkuntza laguntza bereziko arreta jasotzeko eskubidea dute, jardunaldi murriztuan. Zerbitzu hori denboraldi zehatzean eskaintzen da, normalean, bi hilabetez; hala ere, beharrezkoa izanez gero luzatu daiteke. Lehen Hezkuntzan laguntza intentsiboa %9ak jasotzen du (Statistics Finland, 2016).

Laguntza bereziari (*special support*) esker, ikasleek laguntza intentsiboa baino

laguntza handiagoa behar ezker, hezkuntza laguntza bereziko arretaren barne den NCE jasan dezakete. Erabaki hau tutore edota hezkuntza bereziko irakasleak emana da eta ikaslearen curriculumeko helburuak moldatu edo aldatu egiten dira. Hala ere, laguntza bereziaren inguruko erabakia hartu baino lehen, ikaslearen txosten pedagogikoa egiten da. Erabaki hauetatik aurrera, NCE burutzen da eta bertan ikasleen indarrak zein zaitasunak islatzeaz gain, ikasketa helburuak eta ebaluazio irizpideak definitzen dira; eskola nola emango den eta heziketa-testuingurua nola garatuko den ere zehazten da.

Orokorrean, azken laguntza hori hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei zuzendutako laguntza mota da. Zailtasun larriegiak ez direnean, laguntza partziala jasotzen dute baina ezgaitasunak, garapenaren-nahasteak, jokabide-nahasteak, etab. dituzten ikasleek laguntza globala jasotzen dute.

Laguntza mota hori jasotzen duten ikasleek eskola arruntean jaso dezakete irakaskuntza, talde txikiago batentzat egokitutako ikasgelan; talde horiek talde flexibleak edo hezkuntza laguntza berezien arretarako egokitutako talde permanenteagoak izan daitezke. Hala ere, oraindik eta laguntza handiagoa behar duten ikasleak, Hezkuntza Bereziko ikastetxeetara joaten dira (Koivula, 2008).

Statistics Finland-etik (2016) eskuratutako datuen arabera<sup>10</sup>, Lehen Hezkuntzan laguntza berezia ikasleen %15,7ak jasotzen du. Ikasle horien artean %62ak hezkuntza arruntean jasotzen du irakaskuntza. Hala ere, eskola arruntean dauden ikasleen barne, %12a bakarrik da ikasgela arruntaren parte irakaskuntza osoan zehar.

Baliabide profesionali dagokienez, honako hauek aurki daitezke: eskolako osasun zerbitzuak (erizaina adibidez), psikologoa, eskolako gizarte langilea, orientatzailea, hezitzaile bereziak edo auxiliarra, hezkuntza bereziko irakaslea eta ikasgela bereziko irakaslea.

#### **4.2. Datuen justaposizioa**

Hurrengo taulan, azaldutako eta interpretatutako elementuen justaposizioa edo alborakuntza ageri da.

---

<sup>10</sup> Ikusi 4. eranskina.

	Finlandia	Euskal Autonomia Erkidegoa
Hezkuntza-legeak eta arau esparrua	<p>628/1998 Basic Education Act eta 852/1998 Decree (Oinarrizko Hezkuntza Legearen eta Dekretuaren zuzenketa): ikasketa-zailtasunak dituzten ikasleak.</p> <p>1290/1999 Act on Children’s Day Care, 1291/1999 Act on Children’s Home Care and the Private Care Allowance eta 1292/1999 Act on Client Fees in Social Welfare and Health Care: hezkuntza laguntza berezien beharren antolakuntzarako neurriak.</p> <p>2004ko Oinarrizko Curriculumean heziketa-zailtasunak dituzten ikasleen arreta goiztiarra eta laguntza-neurrien kudeaketaren garrantzia azpimarratzen da.</p> <p>2011eko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Oinarrizko Curriculum zuzenketa, laguntza goiztiarra sendotu eta hezkuntza-laguntzarako hiru mailatako laguntza zehazten ditu: laguntza orokorra, laguntza intentsiboa eta laguntza berezia.</p>	<p>118/1998 DEKRETUA, legea, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna: hezkuntza-premia iraunkorrak eta aldi baterakoak.</p> <p>1998ko uztailaren 24ko ERABAKIAk, aparteko gaitasunak edukitzeagatik heziketa-premia bereziak dituzten ikasleei erantzuna</p> <p>1998ko uztailaren 24ko AGINDUA, HPB-ak dituzten ikasleentzat curriculumera sartzeko egokitzapenen eta curriculumaren norbanako egokitzapen nabarien baimena.</p> <p>1998ko uztailaren 30eko AGINDUAN, Gela Egonkorretan, Hezkuntza Bereziako Ikastetxeetan beharizan bereziak dituzten ikasleentzako kanpo-zerbitzuak ezartzen dira.</p> <p>2001eko AGINDUA, (Berritzeguneak) funtzionamendua eta antolamendua arautzen du.</p> <p>175/2007 DEKRETUak Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezarri zuen</p> <p>2012an “Eskola Inklusiboaren esparruan Aniztasunaren Tratatueraren Plan Estrategikoa” argitaratu zen.</p> <p>2015an euskal hezkuntza-sistema hobetzeko “Heziberri 2020” plana sortu zen.</p>
Laguntzen kudeaketa eta baliabide profesionalak	<p>Hezkuntza laguntza berezien sailkapenik ez da egiten, laguntzaren kudeaketarako ez da HPB diagnostikoaren behar. Laguntza goiztiarra da oinarri, Haur Hezkuntzan hasten dena.</p> <p>Laguntza 3 mailatan antolatzen da: Laguntza orokorra, laguntza intentsiboa eta laguntza berezia. Hezkuntza premia bereziei erantzuna ematen diona laguntza berezia da.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <i>Laguntza orokorra</i>: ikasle ororen esku dago eta ikasgela arruntean ematen dira indartze saioak.</li> <li>- <i>Laguntza intentsiboa</i>: ikasgela arruntean. Bereizketa pedagogikoa eta hezkuntza plan zehatza. Indartze saioak indibidualki edo talde txikietan eskola ondoren.</li> <li>- <i>Laguntza berezia</i>. NCE burutzen da. HPB dituzten ikasleei zuzendutako laguntza mota da. Zailtasun larriak ez direnean, laguntza partziala jasotzen dute baina adimen-urritasuna, garapenaren-nahasteak, jokabide-nahaste etab. dituzten ikasleek laguntza globala jasotzen dute. Eskola arruntean eman daiteke, talde txikiago batentzat egokitutako ikasgelan.</li> </ul> <p>Oraindik eta laguntza handiagoa behar duten ikasleak, Hezkuntza Bereziako ikastetxetara doaz. (Koivula, 2008).</p> <p>Baliabide profesionalak: eskolako osasun zerbitzuak, psikologoa, eskolako gizarte langilea, orientatzailea, hezitzaile bereziak edo auxiliarra, hezkuntza bereziako irakaslea eta ikasgela bereziako irakaslea.</p>	<p>Hezkuntza Laguntza Bereziak dituzten ikasleen sailkapenean 6 talde bereizten dira eta laguntza mota ezberdina jasotzen dute haien beharretara egokitzen dena.</p> <p>Norbanako Curriculum Egokitzapenak (arlokoak edo globalak) burutzeko baldintzak daude: HPB duen ikaslea izatea, neurri arruntak (indartzea, errepikapena...) nahikoak ez izatea, curriculumeko-mailaren eta ikaslearen curriculum-egoeraren arteko aldea handia izatea eta ez-ohiko neurria izatea.</p> <p>Beste baliabide moduan: Ospitaleko ikasgelak, etxeko arreta eta arreta terapeutiko-hezigarria (Euskadiko Eskola Kontseilua, 2016).</p> <p>Hezkuntza-laguntzaren berariazko premiarik handienak dituzten ikasleentzako baliabidea: Gela egonkorra eta Zereginen ikaskuntza gela.</p> <p>Baliabide profesionalak: PT (Pedagogo Terapeuta), Entzumen eta Hizkuntzako (EHI) irakasleak, Hezkuntza Laguntzailea (HL) edo hezitzaile espezialistak, fisioterapeutak etab. Espezialista horiei esker banakako arreta modu ezberdinetan antolatu daiteke, bai ohiko ikasgela barruan eta baita ikasgelatik kanpo ere. Ikastetxe kanpoko baliabideak: Gizarte zerbitzuak, Osasun zerbitzuak, eta Hezkuntza Zerbitzuak (Berritzeguneen eskutik).</p>

### **4.3. Ezberdintasun eta berdintasunen egiaztapena: Emaitzak**

Aurrerago ikusiko dugun moduan, hezkuntza laguntza bereziak behar dituzten ikasleen trataerarekiko herrialde bakoitzeko hezkuntza-sistemaren jarduna ezberdina den arren, bakoitzaren oinarri teorikoak bat datoz; izan ere, aukera berdintasunaren eta inpartzialtasunaren bidea defendatzen dute.

#### **4.3.3.1. Hezkuntza legeen eta arau esparruan azterketaren emaitzak**

Hezkuntza-lege eta arau esparruari dagokienez, alde batetik, Finlandian hezkuntza-legeek hezkuntza laguntza bereziak behar dituzten ikasleei erantzuteko eskola arrunta erreferentzia-puntu gisa ezarriz, legedia eta curriculuma eguneratzen joan dira gaur egun arte. Hala eta guztiz ere, hezkuntza-neurri eta curriculum berrikuntzek inklusiorantz gerturatzeko ahalegina egin badute ere, oraindik indarrean dagoen 1998ko oinarrizko legetik ez da berrikuntzarik egin. Aipagarria da hezkuntza-sistema honek, EAEko hezkuntza-sistemak ez bezala, ez duela sailkapenik egiten aniztasunaren trataerari erantzuna emateko hezkuntza laguntza premien inguruan; ondorioz, ikasleen zailtasunen homogeneizazio arriskua aurkitzen da.

Bestetik, EAEn araudiaren aurrerapena argia da eta hezkuntza laguntza bereziak behar dituzten ikasleei erantzun indibidualizatu eskaintzen da. Izan ere, definitutako hezkuntza laguntza berezia behar duten ikasleen sailkapena dela eta, zailtasunak dituzten ikasleei erantzun eraginkorra eta espezializatuagoa eskaintzea lortu da. EAEko legediak, Finlandiarenak bezala, eskola arrunta erreferentzia-puntu gisa ezarri duela ikus daiteke; edonola ere, Finlandiako legediaren egoera berdinean aurkitzen da: 1998ko legeak indarrean jarraitzen du. Lege horretan ez dira HPB duten ikasleen kontzeptua eta eskola inklusiboaren kontzeptua biltzen; bai, ordea, curriculuma ezartzen duen dekretuan eta 2012-2016ko Plan Estrategikoan.


#### **4.3.3.2. Laguntzen kudeaketaren eta baldintza profesionalen emaitzak**

Laguntzen kudeaketa eta baldintza profesionalak oso ezberdinak dira bi tokietan. Alde batetik, Finlandian, esan bezala, arreta hiru laguntza mailatan jartzen da: laguntza orokorra, intentsiboa eta berezia. Dena dela, hezkuntza laguntza premia bereziak dituzten ikasleei eskainitako laguntza berezia eskola arruntean emateak ez du ikasgela barruko inklusioa burutzen denik ziurtatzen; datuen arabera, eskola arruntean laguntza berezia jasotzen duten ikasleen barne, %12a bakarrik dago ikasgela arruntean irakaskuntza osoan zehar. Datuei erreparatuz eta Ainscowen (2005) inklusioaren definizioaren barne den esaldi hau kontuan hartuz: *Inklusioa ikasle guztien asistentzia, parte-hartzea eta errendimendua da*, Finlandiako laguntzen kudeaketan legediaren inklusio-printzipioa betetzen ez dela antzeman daiteke.

Bestetik, EAE bakoitzaren beharrei egokitutako baliabide pertsonaletan oinarritzen da, horrela, hezkuntza laguntza premia berezia duten ikasleei ahalik eta erantzun egokiena emateko. Ikasleei eskainitako laguntza eta baliabide profesionalak zabalak izanik, ikasle bakoitzak duen zailtasunari aurre egiteko profesional zehatzen laguntza eskaintzen da, ikasgela barruan ahalik eta denbora gehien. Beste ezberdintasun nagusia hezkuntza-laguntza horiek eskaintzeko aurretiko fasean ikus daiteke. Izan ere, EAEn HPB izatearen diagnostiko ofiziala ezinbestekoa den bitartean, Finlandian ez da baldintza hori eskatzen. Baldintza horretan, Finlandiak arreta ahalik eta azkarren eskaintzeko aukera du; EAEn, berriz, laguntzen eskaera horiek betetzeko zailtasun eta oztopo handiak jasaten dira. Hala eta guztiz ere, Finlandian hezkuntza laguntza bereziak dituzten ikasleen sailkapena ez burutzeak, esan bezala, bakoitzari eskaini beharreko laguntza indibiduala eta espezializatua eragozten duela ikus daiteke.

#### 4.3.3.2. Inkesten emaitzak

Azkenik, burututako inkesten emaitzak<sup>11</sup> hezkuntza-sistema bakoitzaren errealitatearen azterketarekin bat datozela frogatu ahal izan da. Inkesten arabera, EAeko eta Finlandiako ikastetxeetako irakasleen erantzunen artean ezberdintasuna ageri da. Izan ere, datuei erreparatu, Finlandiako bi ikastetxeetan inklusioarekiko jarrera uzkurra den bitartean, EAeko ikastetxeetako irakasleek jarrera baikorragoa adierazten dute. Hurrengo grafikoetan baieztapen horren adibide deigarrietarikoak agertzen dira:




4. grafikoa: “Premia bereziak dituzten ikasleak Hezkuntza Bereziko Ikastetxeetan egon beharko lirateke”

Goiko grafikoan ikus daitekeen moduan, irakasle finlandiarren %70a (30 irakasletik 21) ados dago honako esaldi honekin: *Premia bereziak dituzten ikasleak Hezkuntza Bereziko ikastetxeetan egon beharko lirateke*. EAeko bi ikastetxeetan, aldiz, irakasleen %83,3ak

<sup>11</sup> Ikusi 5. eranskina.

(30etik 25 irakasleek) desadostasuna adierazi du, beste %16,7ak (5 irakasleek) “Ez bata eta ez bestea” erantzun dutelarik.

Horren haritik, beheko grafikoan adierazten den moduan, inkestetan jasotako 12. galderaren erantzunak ere nabarmenak dira:



5. grafikoa: “Premia bereziak dituzten ikasleak integratzearekin nahikoa da, ez lirateke ikasgela arruntean inkluiturik egon beharko” galderaren emaitzak.

Azken grafiko horrek irudikatzen duen moduan, Finlandiako irakasleen %63,3a (30 irakasletik 19) ados dago honako esaldi honekin: *Premia bereziak dituzten ikasleak integratzearekin nahikoa da, ez lirateke ikasgela arruntean inkluiturik egon beharko*. EAEn, berriz, beste 30 irakasletik 2k bakarrik adostu dute; hau da, %6,7ak. Hortaz, orokorrean, inklusioarekiko kontzientziazioa handiagoa nabari da EAEko ikastetxeetan.

Oro har, praktikan inklusioaren printzipioaren aplikazioa Finlandian ematen ez dela ikus daiteke. Egoera hori inkestetako erantzunekin erlazionatuz, irakasleen pentsamendu eta jarrerak duten eragina nabarmena da. Bestalde, EAEn inklusioaren prozesuan gauza asko egiteke badaude ere, bertako irakasleek erakutsitako jarrera baikor eta irekiak garapen hori erraztuko du.

### 5. Ondorioak

Ezberdintasun zein berdintasunen arabera Finlandiako eta EAEko emaitzak aztertu ondoren, honako ondorio hauek atera daitezke.

Lehenik, ezin da lehenengo hipotesia egiaztatu; izan ere, EAEko zein Finlandiako hezkuntza-legeek, biek, eskola arrunta erreferentzia puntutat hartzen dute hezkuntza inklusiboaren prozesuan. Bi tokietan curriculuma eguneratzeko berrikuntzek eta planek ikasleen inklusioa bermatzen badute ere, hezkuntza laguntza bereziak behar dituzten ikasleei erantzuteko indarrean dauden legeak zaharkiturik daude bai Finlandian zein EAEn. Horren aurrean, oinarri moduan dauden HPB duten ikasleen kontzeptua eta eskola inklusiboaren



kontzeptua legearen barne egon beharko liratekeela kontuan hartuz, Finlandiako zein EAEko legeen berregituraketaren beharra sumatzen da. Horrela, edozein arrazoirengatik hezkuntza laguntza bereziak behar dituzten ikasleei ahalik eta erantzun egokiena eskainiko zaie bi lurraldeetan.

Bigarren hipotesiari dagokionez, emaitzak oinarriztat hartuz, baieztatzen dela esan liteke. Alde batetik, EAEk laguntzen kudeaketaren zehaztasunak arreta indibiduala eskaintzen die ikasleei, ikasgela barruan lan egiteko aurretiko jarrerarekin. Bestetik, Finlandian eskola arruntean laguntza berezia jasotzen duten ikasleen %12a bakarrik dago ikasgela arruntean irakaskuntza osoan; hori kontuan hartuz, legediak eskainitako laguntzen kudeaketan inklusioaren printzipioa betetzen ez dela ikus daiteke. Beste hitz batzuetan, praktikan laguntza berezia behar duten ikasleen trataera integrazioaren ikuspuntutik ematen da Finlandian.

Hori guztia kontuan hartuz, ikasle guztien inklusioa ziurtatzeko arau eta hezkuntza-neurriak martxan jarri badira ere, argi dago aurrerapausoak egiteke daudela bi herrialdeetan. Egia da, hala ere, ezberdintasun garrantzitsuak badirela Finlandia eta EAEn artean. Alde batetik, orokorrean eredutzat hartu izan den hezkuntza-sistema finlandiarrean, hezkuntza inklusiboaren trataeran atzean gelditu direla esan liteke; hau da, oraindik jarrera tradizionala antzeman daiteke, inklusioarekiko gaitzespena adieraziz. Bestetik, EAEn, irakasleen pentsamolde aurrerakoia sumatzen da eta horri esker, inklusioaren bidea gertuago ikusten da.

Horren ildotik, argi dago etorkizunean ikerketa zabalagoa burutzeko aukera badagoela. Esate baterako, inkesten osotasunetik jarraituz, inkestak burutu dituzten irakasleen adina eta generoa aldagai hartuz, pentsamolde bakoitza nondik datorren eta zerrek eragiten duen aztertu liteke. Horrela, modu kuantitatiboan, eskola inklusiboarekiko irakasleek adierazten dituzten jarrerak sakontasun handiagoz aztertu eta horien inguruan arakatu ahal izateko.

Laburbilduz, esan liteke irakasle eta hezkuntza-alorreko profesionalen esku dagoena, batez ere, berreziketa eta horren ondorioz datorren pentsamendu aldaketa dela. Hori horrela, ikasle guztien ongizatea eta aukera berdintasunak bermatzearen, irakasleon helburua honako hau izan beharko litzateke: ezberdintasunen aberastasuna balioestea eta bertatik hezkuntzaren kalitaterako probetxua ateratzea. Azken finean, eskolaren funtsa ikasleak gizarterako prestatzea da. Hortaz, suertatzen diren zailtasun eta erronketatik abiatuz, ikasleak etorkizun hurbilean aurki ditzaketen erronketarako prestatu behar ditugu, errespetuan eta aniztasunean elkarlanean aritu daitezen. Antza denez, askok inklusioa utopiatzat hartzen dute, prozesu zaila eta gorabeheratsua baita. Edonola ere, jarrera proaktiboarekin eta ilusioarekin bultzatu beharreko eskubidea dugu honako hau, prozesuan pixkanaka oztupoak gaindituz eta ikasleentzat eskola errealitatera gerturatuz.

Eskola gizartearen isla bada, hezi ditzagun haurrak errealitatearen aniztasunean.

## 6. Erreferentzia Bibliografikoak

- Ainscow, M. (2003). Desarrollo de sistemas educativos inclusivos. In *La respuesta a las necesidades educativas especiales en una Escuela Vasca Inclusiva*. Donostia: Eusko Jaurlaritzak, 17-34. 2018-01-25an hartuta, hemendik: [http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-2459/es/contenidos/informacion/dia6/es\\_2027/adjuntos/escuela\\_inclusiva/Respuesta\\_necesidades\\_c.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-2459/es/contenidos/informacion/dia6/es_2027/adjuntos/escuela_inclusiva/Respuesta_necesidades_c.pdf)
- Arenas, A. (2016). De la integración a la inclusión: una escuela para todos. *Arjé aldizkaria*, 10 (19), 241-249.
- Arnaiz, P. (2005). *Atención a la diversidad. Programación curricular*. Costa Rica: EUNED.
- Arregi, A., Sainz, A., Tambo, I eta Ugarriza, J. (2006). *Ikerketa. Hezkuntza-Premia Bereziak Lehen Hezkuntzan. Euskal Sistemaren erantzuna*. Bilbo: ISEI-IVEI.
- Banco Santander (2017). Finlandia: política y economía. 2018-01-30an hartuta, hemendik: <https://es.portal.santandertrade.com/analizar-mercados/finlandia/politica-y-economia>
- Datos Macro (2016). La población en Finlandia. 2018-01-29an hartuta, hemendik: <https://www.datosmacro.com/demografia/poblacion/finlandia>
- Datos Macro (2017a). La población en el País Vasco. 2018-01-29an hartuta, hemendik: <https://www.datosmacro.com/ccaa/comparar/pais-vasco/espana>
- Datos Macro (2017b): Presupuestos del País Vasco: Educación. 2018-01-29an hartuta, hemendik: <https://www.datosmacro.com/estado/presupuestos/espana-comunidades-autonomas/pais-vasco?sector=Educaci%C3%B3n&sc=PR-G-F-32>.
- European Agency for Special Needs (2015). Finland Data. 2018-01-30an hartuta, hemendik: <https://www.european-agency.org/data/finland/datatable-overview>
- Eurydice (2016). Contexto político, económico y social. 2018-01-29an hartuta, hemendik: [https://webgate.ec.europa.eu/fpfis/mwikis/eurydice/index.php/Espa%C3%B1a:Contexto\\_pol%C3%ADtico,\\_econ%C3%B3mico\\_y\\_social](https://webgate.ec.europa.eu/fpfis/mwikis/eurydice/index.php/Espa%C3%B1a:Contexto_pol%C3%ADtico,_econ%C3%B3mico_y_social)
- Espinoza, V. (1983). La educación comparada, breve estudio documental. *Revista Educar*, 3, 169-181.
- Euskadiko Eskola Kontseilua (2016) *Hezkuntza Euskadin. 2013-2015eko txostena*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila.
- Eusko Jaurlaritzak (2001). *Xedapen Orokorrak*. EHAA: Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa Saila, 2018-04-20an hartuta, hemendik: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2001001830>

- Eusko Jaurlaritz (2015). *236/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena*. Gasteiz: Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2018-04-20an hartuta, hemendik: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritz/-/dekretua/2362015-dekretua-abenduaren-22koa-oinarrizko-hezkuntzaren-curriculuma-zehaztu-eta-euskal-autonomia-erkidegoan-ezartzen-duena/>
- Eusko Jaurlaritz (2018). *2017-2018ko ikasturterako norbanako curriculum egokitzapenak tramitatzeko berrizatzeko zuzendariak eta ikuskari nagusiak batera emandako argibideak*. Gasteiz: Hezkuntza Saila, 2018-04-20an hartuta, hemendik: [http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/comunicaciones centros/eu\\_inspec/adjuntos/NCE\\_JARRAIB\\_1718\\_BERRIK\\_IKUSK\\_EUS.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/comunicaciones centros/eu_inspec/adjuntos/NCE_JARRAIB_1718_BERRIK_IKUSK_EUS.pdf)
- Eustat (2017). *Euskal Urtekari Estatistikoa*. Gasteiz: Euskal Estatistika Erakundea.
- Évole, J. (2013). *Cuestión de educación*. Salvados. La Sexta, 2018-01-30an hartua, hemendik: <http://www.dailymotion.com/video/xx9uft>
- Finnish National Agency for Education (2018). *Education in Finland*, 2018-01-30an hartuta, hemendik: [https://www.oph.fi/download/175015\\_education\\_in\\_Finland.pdf](https://www.oph.fi/download/175015_education_in_Finland.pdf)
- Gross, J. (2004). *Necesidades educativas especiales en educación primaria*. Madril: Morata.
- Halinen, I. eta Järvinen, R. (2008). En pos de la educación inclusiva: el caso de Finlandia. *Perspectivas*, 23 (1). Helsinki: National Board of Education, 2018-03-20an hartua, hemendik: [http://sid.usal.es/idocs/F8/ART14017/en\\_pos\\_educacion\\_inclusiva\\_finlandia.pdf](http://sid.usal.es/idocs/F8/ART14017/en_pos_educacion_inclusiva_finlandia.pdf)
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (2012). *Eskola esparruan aniztasunari erantzuteko Plan Estrategikoa 2012-2016*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzua.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Euskarabidea eta Euskararen erakunde publikoa (2016). *VI Encuesta Sociolingüística. Comunidad Autónoma de Euskadi*. Donostia: Eusko Jaurlaritz, Nafarroako Gobernua eta Euskararen erakunde publikoa.
- Ikuspegi (2018). *EAEko biztanleria eta jatorri atzerritarra duen biztanleriaren portzentajea lurralde historikoen arabera*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritz, 2018-03-20an hartuta, hemendik: [http://www.ikuspegi.eus/documentos/tablas/euskera/2017/TTHH\\_porcent Extr\\_2017eus.pdf](http://www.ikuspegi.eus/documentos/tablas/euskera/2017/TTHH_porcent Extr_2017eus.pdf)
- Official Statistics Finland (2017). Special education. Appendix table 1. Comprehensive school pupils having received intensified or special support, 2016. Helsinki: Statistics Finland, 2018-04-03an hartuta, hemendik:

[https://www.stat.fi/til/erop/2016/erop\\_2016\\_2017-06-13\\_tau\\_001\\_en.html](https://www.stat.fi/til/erop/2016/erop_2016_2017-06-13_tau_001_en.html)

Official Statistics of Finland (2017): Special education. Appendix table 5. Comprehensive school pupils having received special support by place of provision of teaching, 2016.

Helsinki: Statistics Finland, 2018-02-04an hartuta, hemendik:

[http://www.stat.fi/til/erop/2016/erop\\_2016\\_2017-06-13\\_tau\\_005\\_en.html](http://www.stat.fi/til/erop/2016/erop_2016_2017-06-13_tau_005_en.html)

Official Statistics Finland (2018): Educational finances 2016. Helsinki: Statistics Finland, 2018-02-03an hartuta, hemendik:

[https://www.stat.fi/til/kotal/2016/kotal\\_2016\\_2018-05-09\\_tie\\_001\\_en.html](https://www.stat.fi/til/kotal/2016/kotal_2016_2018-05-09_tie_001_en.html)

Pirttimaa, R. (2016). *The evaluation of inclusive policy in Finland: findings and lessons*.

Helsinki: Cnesco, 2018-05-11an hartuta, hemendik:

[http://www.cnesco.fr/wp-content/uploads/2015/12/05\\_Pirttimaa.pdf](http://www.cnesco.fr/wp-content/uploads/2015/12/05_Pirttimaa.pdf)

Prospekzio Soziologikoaren Kabinetea (2012). *Diversidad religiosa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

Sainz, A. (1998). *Garapenaren Nahaste Orokortuak dituzten ikasleentzako Gela Egonkorren funtzionamendurako orientabideak*. Gasteiz: CEI.

UNESCO eta Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa (1995). *Declaración final de la Conferencia Mundial sobre Necesidades educativas especiales*. Salamanca: Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa.

UNESCO, UNICEF eta HINENI (2003). *Hacia el desarrollo de escuelas inclusivas. Inclusión educativa de niños con discapacidad al aula regular*. Santiago de Chile: UNICEF.

UNESCO (2005). *Guidelines for Inclusion: Ensuring Access to Education for All*. Paris: UNESCO.

UNESCO (2008). *La educación inclusiva: el camino hacia el futuro*. Erreferentzia-dokumentua. Geneva: UNESCO.